

Eusko Jaurlaritzak ez du hezkuntzaren kalitatea negoziazioaren erdigunean kokatu nahi

Sindikatuoi hilabetez negoziatzeko aukera ukatu ondoren, gatazka presaka itxi nahi du. Hezkuntza Sailak komunikabideetan ikasleen beharretan eta eskola publikoa hobetzeko baliabideetan inbertituko duela esan badu ere, soldataren eztabaida ireki eta erdigunean jarri du.

Izan ere, azken urteetan eta LAB lehen indarra den hezkuntza publikoko kolektiboetan sinatu berri diren lan hitzarmenetan —Haurreskolak Partzuergoan, Heziketa Berezian eta Sukalde eta Garbiketa— ezinezkoa izan da soldata igoerak negoziatzea. Soilik Eusko Jaurlaritzako kategorien arteko ekiparazioa egin ahal izan da, heziketa bereziko hezkuntza laguntza espezialistak haurreskoletako hezitzaileekin edo sukalde eta garkiketako langileak administrazio orokorreko beraien parekoekin.

Ostean, Ertzaintzari %10eko soldata igoera egin zioten, eta horrek ireki du, aitzakiak aitzaki, ezinezkoa zen soldata igoerari buruzko eztabaida. Beraz, Eusko Jaurlaritzak ireki du ate hori, ez beste inork.

Sinatu berri diren kolektibo horietan egin bezala, LABek, langileen lan baldintzak hobetu asmoz, baliabideen esleipenean zentratu ditu bere ekarpenak, lan baldintzak hainbat modutara hobetu daitezkeelako eta eskoletan ditugun erronkei erantzuteko baliabideen indartzeak berebiziko garrantzia duelako, 15 urte dituen akordioa berritzea nahi badugu.

Gauzak horrela, apirilean egin eskaintzatik hona ez du aurrerapausorik egin baliabideen esleipenen alorrean, eta Hezkuntza Sailak gaur egindako proposamenean %6,5eko igoera jasotzen du. Igoera horrez gain, %1,5eko gehigarria Barne Produktu Gordinarekin baldintzatu du.

Aurretik egindako eskaintzan konplexutasun tasa altua duten eskoletan ari diren irakasleen soldata igotzea proposatzen zuen, bertan lan egiten dutenen lan zama diruarekin konponduko delakoan.

2025eko lehen hiruhilekoan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Geroko Produktu Gordina % 2,0 hazi zen, eta enplegua % 1,5. 2024ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, Eustaten arabera, BPGren hazkundea % 0,6koa izan da. LABek oso arriskutsua ikusten du bizi dugun egoera ziurgabea eta errebisatzen diren aurreikuspenak beheranzeko joera dutenean, soldatak indize horri lotzea, eta ez dugu onartuko. Lotzekotan, KPIarekin lotu beharko lirateke.

Beraz, guretzat argi dago, eskola publikoa sistemaren ardatza izatea nahi baldin badugu, euskal eskola publiko komunitarioan sare publiko bakar deszentralizatuan baliabideak erdigunean jarri behar direla.